

# Esnobismoa

Orain urte askotxo aspaldi desagerturiko *Anaitasuna* aldizkarian *Snobismoa* izeneko artikulutxo bat argitaratu nuen. Ingalaterrako Bradford hirian eginiko egonaldi baretetik itzuli berria nintzen. Hiri nahiko txikia zen Bradford, eta, bizitza kultural handirik ez zeukan, antolatzen zen ia edozertara hurbiltzen nintzen. Behin, ospe handiko musikaria omen zen Peter Tosh-en kontzertu batera bertaratu, eta entzundako musikak liluratu egin ninduen. Haiek globalizaziorik eta Internetik gabeko garaiak ziren, eta Euskal Herrian –hegoaldean bederen– ez genituen ezagutzen ez Tosh jauna ezta reggae musika bera ere. Etxeretatutakoan, pozarren erakutsi nizkien lagunei erositako Toshen diskoak, eta kontzertuarena kontatu. Bada, den-denek erantzun zidaten aho batez musika hura kaka hutsa zela, ez zutela batere gustuko alegia. Handik gutxira hasi ziren musika mota hori irratietan-eta jartzen, eta denek maite zituzten Bob Marley, Eddy Grant eta baita dioxosozko Peter Tosh ere!

Egunotan gogoratu naiz artikulua hartaz. Badakit jakin gertakizunak erabat desberdinak direla, baina nik nahiko antzekotasuna aurkitzen diet. Euskaldun atipikoa bide naiz, eta futbola



Imanol Alvarez  
IRAKASLEA

Maiz joaten naizen antzoki bateko arduradunei behin baino gehiagotan iradoki diet talde horietako baten bat kontratatzea, batez ere jaietarako; baina alferrik

gustatu beharrean antzerkia nahiago, eta ardo beltzaren orde txinpartaduna gurago... Aitak berak esan ohi zidan ezin nintzela benetako euskalduna izan beltza eta futbola (batez ere Athletic) maitatu barik. Hori gutxi ez, eta Talia- ren disziplinen artetik betidanik gehien erakarri nauena kabareta, music-halla eta batez ere garai batean omnipresen-

te zen errebista musikala dira. Oraindik ditut gogoan barraketan egoten ziren antzoki karpadun ibiltari haie- tako kartelak, edota ikastetxe ondoan zegoen auzo-antzoki batera etortzen ziren hirugarren mailako konpainie- nak: miresten nituen. Hain nuen handia zaletasuna, ezen *Anaitasuna* bertan eta baita *Eginen* ere hainbat erreporta- je argitaratu baintuen mundu horretaz. Egun ia desagertu da hori guztia, baina oraindik gelditzen dira azken mohika- noak, konpainia eta artista gutxi batzuk herriz herri euren ikuskizunekin joaten direnak, eta ikuskizunetako batzuk oso duinak izaten dira.

Maiz joaten naizen antzoki bateko arduradunei behin baino gehiagotan iradoki diet talde horietako baten bat kontratatzea, batez ere jaietarako; baina alferrik. Euren ezjakintasunean modaz pasatutzat daukate, edota zerbait *kas- poso* eta frankistarekin identifikatzen dute nonbait, bereziki *errebista* hitza. Lehengoan, aldiz, ikusi nuen antzoki horretako programazioan music-hall estiloko ikuskizun bat iragartzen dute- la. Hori sorpresa! Baina, jakina, titulua ingelesez dago: *Las Vegas Show*. A! Hori ja beste gauza bat!

Esnob ez dakit, baina *paleto* bai. *Paleto* hutsak gara! ■

**ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A**

**GORBEIALDEKO TOPAKETA IZARRA**  
12:00etan **BERTSOTLOIA**  
Frontoia tabernatik hasita  
14:30ean **BAZKARIA**  
(12€) Behekoiturri  
elkartean Izena emateko  
665700097, 615739255  
16:30ean **BERTSO-ERRONKAK**  
Behekoiturri elkarte  
[www.bertsozale.eus/araba](http://www.bertsozale.eus/araba)

**BERTSOLAHARIAK LATAK URKABUSTAZ**

**ELEXARRU TA 4 ARAMAIO**

**BOSTIBASTA LEGUTIO**

**4 OINSTAN FOTO MAGIA**

**EZ JATZU GUSTABIHER ARAMAIO**

**LABORAL**

**udapa**

**artepan**

**Vital**

**Jargia**